



EUOPAR BATASUNA  
Europako Gizarte Funtza  
EGFK zure etorkizunean inbertitzen du

UNION EUROPEA  
Fondo Social Europeo  
El FSE invierte en tu futuro



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

## ALDIBATERAKO KONTRATAZIOA

**Lanbidek eta Europako Gizarte Funtzak, Gazte Enpleguko 2014-2020 Programa Operatiboaren esparruan gazte langabeak kontratatzeke deialdi hau finantziatuko dute**

### 1/ KONTRATAZIOA

LANPOSTUA	PROIEKTUA	JARDUNA	IRAUPENA
Informatika laguntzailea	Gestiti programaren doikuntza Arrasateko Udaltzaingorako	% 100	12 hil.

### 2/ KONTRATATZEKO BALDINTZAK

#### ▪ Baldintza orokorrak

Hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte bai eskaera egiteko unean bai kontratua egiterakoan:

- a) Deialdia egin eta sei hilabete lehenagoz Arrasaten erroldaturik egotea.
- b) 16 urte baino gehiago eta 30 baino gutxiago izatea
- c) Enplegu-eskatzailerik izan behar dute, alta egoeran, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan, eta bete behar duten **lanpostuari dagokion hezkuntza maila** izan behar dute.
- d) Ezingo dira kontratatu 2019 edo 2020ko ekitaldietako deialdietan kontratatuak izan diren pertsonak.
- e) Gazteen Bermerako Sistemari inskribatuta egon behar dute.
- f) Lanbidek Gazte Enplegurako 2014-2020 Programa Operatiboaren esparruan gazteak kontratatzeke 2021. urterako diru-laguntzen deialdiko baldintzak betetzea (EHAA 2021/06/29).
- g) Lehenetsun-ordena hau beteko da hautaketa-prozesuan:
  - DSBE prestazioaren titularrak edo onuradunak
  - 30 urteko adinetik gertuen dauden pertsonak
  - Baldintzak betetzen dituzten gainerako gazteak

#### ▪ Berriazko baldintzak

- Informatika familiako teknikari edo goi-mailako teknikari titulua.
- Euskara: 3 HE edo baliokidea egiaztatzea (agiriz edo proba eginez).

### 3/ HAUTAGAIEN AURRETIKO AUKERAKETA

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, ezarritako baldintzen arabera.



EUOPAR BATASUNA  
Europako Gizarte Funtza  
EGFK zure etorkizunean inbertitzen du

UNION EUROPEA  
Fondo Social Europeo  
El FSE invierte en tu futuro



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

#### 4/ HAUTAGAIEN AZKEN AUKERAKETA

Hautagaien azken aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez.

#### 5/ EPAIMAHAIA

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

**Epaimahaiburua:**

- Udal teknikari bat edo arlo-burua.

**Epaimahaikideak:**

- Postuari dagokion arloko teknikari bat.
- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Udal funtzionario bat, ordezkari-tza sindikalak proposatuta.

**Idazkaria:**

- Udal funtzionario bat.

#### 6/ INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, aurrez aukeratutako hautagaien zerrenda, azterketak edo elkarrizketak egiteko deialdiak, hautaketa proben emaitzak, eta abar) udaleko web orrian argitaratuko ditu ([www.arrasate.eus](http://www.arrasate.eus)) eta interesdunen eskura jarriko ditu BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**

Arano eta Gartzia maisu-maistra 8

Tel.: 943 252000

[baz@arrasate.eus](mailto:baz@arrasate.eus)

#### 7/ HAUTAKETA ARAUAK

- **Probak**

- *Praktikoa*: 0-35 puntura baloratuko da eta gutxienez 17,5 atera behar da aurrera egiteko.
- *Elkarrizketa*: 0tik 15 puntu arteko balorazioa izango du, eta gutxienez 7,5 puntu lortu behar dira .